

eremuak-ek egonaldi-deialdi bat ireki du, Halfhousekin lankidetzan, Euskal Autonomia Erkidegoan. Deialdiak arte bisualen testuinguruan lan egiten duten artistei eta/edo sortzaileei laguntzea du helburu.

Egonaldia abuztuaren 1ean hasi eta irailaren 30ean amaituko da, Bartzelonako Halfhouse etxean. Egonaldia artistaren erakusketa batekin amaituko da, gune horretan bertan eta irailaren 28tik aurrera.

Halfhouse

Halfhouse arte proiektuak egiten diren etxe bat da. 2009tik, Halfhousek nazioko eta nazioarteko artistak gonbidatu ditu beren lanak bertan aurkeztera, eta egonaldi bat antolatzen du uda bakoitzeko.

Gunea Collserola parkearen alboan dago, hiriaren goialdea inguratzen duen berdegune batean. Etxea Kataluniako trenbide-geltoki baten parean kokatuta dago eta, beraz, 12 minututan irits zaitezke hiriaren erdigunera. Etxearen kokalekuak nolabaiteko bakea eskaintzen du Bartzelona hiriko turismoaren aldean, eta tenperatura atseginagoa da udan. Gainazal erabilgarriak 100 m² ditu etxearen barnealdean eta 270 m² lorategian.



“Pilar” Jorge Satorre, 2013ko egoitza

Etxeak artista bat, bi artistaz osaturiko talde bat edo artista bera eta haren familia har ditzake. Egongela, pasillo zabal bat, bi logela eta tailerra ditu, baina logela bat aldatu egin daiteke tailerrerako leku gehiago izateko. Egoiliarrak etxe guztia izango du beretzat, etxearen ohiko egoiliarrak ez baitira bertan egongo egonaldiak irauten duen bitartean. Edonola ere, lehenengo astean egoiliarraren jarraipena egingo da, baita erakusketa inauguratu baino astebate lehenago ere; inaugurazioa erakusketa muntatu eta prestatzeko lanekin batera egingo da. Bestalde, Halfhousek hiriko ehun artistikoko zenbait kontaktu eskainiko dizkio egoiliarrari.

Egonaldiaren baliabideak

eremuak/Halfhouse lankidetzaren lehen egonaldiak honako baliabide hauek eskainiko dizkio egoiliarrari:

- Bi hilabeteko egonaldia Halfhousen.
- Argiari, Interneti, urari eta gasari dagozkion gastuak barne.
- Artistarentzako 1.000 €-ko Fee bat.
- Erakusketa egiteko produkzioa: 1.000 € + BEZ.
- Erakusketaren ekoizpenerako eta muntaketarako laguntza logistikoa.
- Erakusketaren hedapena. Inaugurazioa Bartzelonako Gallery Weekend deiturikoarekin batera egingo da.

Datak

- Deialdira aurkezteko epea **2016ko uztailaren 1ean** itxiko da, gaueko hamabietan.
- Egonaldia 2016ko abuztuaren 1ean hasi eta 2016ko irailaren 26an amaituko da.
- Erakusketa irailaren 28an inauguratuko da.
- Hautaketa-prozesuaren emaitza uztailaren 15ean argitaratuko da, eremuak-en web-orrian.

Eskaera

Eskaera egiteko, bidali jarraian adierazten diren dokumentuak **eremuak-en helbide elektronikora**: eremuak@eremuak.net

- Artistaren obrari dagokion dossier bat (gehienez ere 10Gb)
- Motibazio-eskutitza (gehienez ere 200 hitz).
- CV eguneratua, NAN fotokopia eta telefono-zenbakia.

Informazio gehiago www.halfhouse.org webgunean

